



GOBERNU BATZARRA

2023.01.03

Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Patxi Amantegi Zubiria
Xarles Iturbe Pasaban
Begoña Tolosa Mendia

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko urtarrilaren hiruan, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:

Bertaratu ez diren zinegotziak:
Xabier Balerdi Tolosa
Jose M. Villanueva Telleria

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzaile akzidentala:
Paulino Alonso Eraso

1. Akta hau onartzea: 2022ko abenduaren 27koa
2. Onartzea Tolosako udaleko sail ezberdinek dituzten komunikazio behar estrukturaleri erantzuteko zerbitzu-kontratua adjudikatzea
3. Onartzea huts deklaratzeko bazterkeria egoeran daudenezako eguneko eta gaueko arreta zerbitzu-kontratuaren lizitazioa.
4. Dekretu hauen berri ematea:
2022/3039 dekretua: 2022/53 faktura zerrenda.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2022KO ABENDUAREN 27KOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA TOLOSAKO UDALEKO SAIL EZBERDINEK DITUZTEN KOMUNIKAZIO BEHAR ESTRUKTURALEI ERANTZUTEKO ZERBITZU-KONTRATUA ADJUDIKATZEA

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea	Tolosako Udaleko sail ezberdinek dituzten komunikazio behar
--------------------	---



	estrukturei erantzuteko zerbitzua.
Unitate sustatzailea	Komunitatea eta Gobernantza Saila
Espedientea	2022SABI0008

II.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko Komunitatea eta Gobernantza Saileko buruak 2022ko uztailaren 29an egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: Administrazio baldintza partikularren plegua; preskripzio tekniko partikularren plegua; baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

2022ko urtarrilaren 25ean Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian (DO/S S17 40897-2022-ES) argitaratu zen lizitazioaren aurretzako iragarkia.

Bigarrena.- 2022ko urriaren 18an, Tokiko Gobernu Batzarrak, besteak beste, Tolosako Udaleko sail ezberdinek dituzten komunikazio behar estrukturei erantzuteko zerbitzu-kontratuaren espedientea onartu zuen eta hasiera eman zion lizitazioari.

Hirugarrena.- Proposamenak aurkezteko epean, hauek izan ziren jasotako eskaintzak:

- Lote 1: ADAKI DISEINUA ETA PUBLIZITATEA, S.L. (B20828729)
- Lote 2: JON GAZTAÑAGA MALUMBRES (xxx578xxX)
- Lote 3: ez zen eskaintzarik jaso

Laugarrena.- Erreferentziako kontratuaren 3. lotea huts deklaratu zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko azaroaren 23an egindako bilkuran

Bosgarrena.- Behin izapidetze guztia legearen arabera egin eta gero, 2022ko abenduaren 30an, kontratazio-mahaiak hau proposatu zion kontratazio-organoari: Erreferentzian aipatutako kontratua, bi loteetako bakoitzerako, honako enpresa hauei adjudikatzea honako baldintzetan:

LOTE 1: ADAKI DISEINUA ETA PUBLIZITATEA, S.L. (B20828729)

- Prezioa bi urterako: nagusia 150.688,00 euro eta BEZa 31.644,24 euro; guztira 182.332,48 euro.

- Aurrez aurreko zerbitzua: 13 ordu.

LOTE 2: JON GAZTAÑAGA MALUMBRES (xxx578xxX)



- Prezioa bi urterako: nagusia 169.500,00 euro eta BEZa 35.668,50 euro; guztira 205.518,50€ euro.

- Erantzuteko denbora kartelak: 2 ordu.

- Erantzuteko denbora mp4: 2 ordu.

III.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan; SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.

2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea —kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean—, aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.856.976 euro) baino gutxiago da; hortaz, alkate-lehendakaria da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna. Horiek horrela, alkate-lehendakariak 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.3 artikuluan xedatutakoan oinarrituz, 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetza Dekretuaren bitartez erabaki zuen 600.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea. Horiek horrela, **Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da** kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.

Aipatu behar da, kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, eta hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioekin.



Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU :

LEHENA.- Lizitazio-egintzaren baliozkotasuna deklaratzeko.

BIGARRENA.- ADAKI DISEINUA ETA PUBLIZITATEA, S.L. (B20828729) enpresari adjudikatzea kontratuaren 1. lotea (Sailek egunerokotasunean dituzten komunikazio aholkularitza beharrei erantzuteko eta idatzizko edukiak prestatzeko zerbitzua) baldintza hauetan:

- Prezioa bi urterako: nagusia 150.688,00 euro eta BEZa 31.644,24 euro; guztira 182.332,48 euro.

- Aurrez aurreko zerbitzua: 13 ordu.

HIRUGARRENA.- JON GAZTAÑAGA MALUMBRES (xxx578xxX) jn.ri adjudikatzea kontratuaren 2. lotea (Udal sail ezberdinek dituzten diseinu grafikoko elementu beharrei erantzuteko zerbitzua) baldintza hauetan:

- Prezioa bi urterako: nagusia 169.500,00 euro eta BEZa 35.668,50 euro; guztira 205.168,50€ euro.

- Erantzuteko denbora kartelak: 2 ordu.

- Erantzuteko denbora mp4: 2 ordu.

LAUGARRENA.- Adieraztea enpresak lizitazioa arautzen duten pleguetan xedatutakoa bete beharko duela, inolako erreserbarik gabe.

BOSGARRENA.- Erabaki horiek jakinaraztea interesdunei, Komunitatea eta Gobernantza Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

3. ONARTZEA HUTS DEKLARATZEA BAZTERKERIA EGOERAN DAUDENENTZAKO EGUNEKO ETA GAUEKO ARRETA ZERBITZU-KONTRATUAREN LIZITAZIOA.

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea	Bazterkeria egoeran daudenentzako eguneko eta gaueko arreta zerbitzua
--------------------	---



Unitate sustatzailea	Gizarte Zerbitzu eta Osasun Saila
Espedientea	2022SABI0009

II.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzu eta Osasun Saileko buruak 2022ko urriaren 4an egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: administrazio baldintza partikularren plegua; preskripzio tekniko partikularren plegua; baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

2022ko urtarrilaren 25ean Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian (DO/S 17 40893-2022-ES) argitaratu zen lizitazioaren aurretzako iragarkia.

Bigarrena.- Espedientea eta administrazio baldintza partikularren zein preskripzio tekniko partikularren pleguak 2022ko azaroaren 23an onartu zituen Tokiko Gobernu Batzarrak. Lizitazioaren deialdia, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Kontratatzailearen Profilean argitaratu zelarik.

Hirugarrena.- Hauek dira lizitazioaren oinarritzko datuak:

- CPV: 85300000-2, 85310000-5 eta 85320000-8
- Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua (BEZ barne): 507.487,07 euro.
- Balio zenbatetsia: 692.027,82 euro.
- Prozedura: irekia.
- Proposamenak aurkezteko azken eguna: 2022ko abenduak 19.

Laugarrena.- Proposamenak aurkezteko epean, enpresek ez dute proposamenik aurkeztu; beraz, 2022ko abenduaren 30ean kontratazio mahaia bildu da eta aho batez kontratazio-organoari aipatutako zerbitzu-kontratuaren lizitazioa huts deklaratzeko proposatu dio.

III.- APLIKATU BEHARREKO LEGERIA

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.

IV.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.



- 1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*
- 2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.*

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.856.976 euro) baino gutxiago da; hortaz, alkate-lehendakaria da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna. Horiek horrela, alkate-lehendakariak 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.3 artikuluan xedatutakoan oinarrituz, 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 alkatetzaren dekretuaren bitartez erabaki zuen 600.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuak Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetzea. Horiek horrela, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia ikusita, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea bazterkeria egoeran daudenentzako eguneko eta gaueko arreta zerbitzu-kontratuaren lizitazioa huts deklaratzeko, 2022ko abenduaren 30ean kontratazio-mahaiak proposatutakoa jarraituz.



BIGARRENA.- Huts deklaratzearen berri kontratzailearen profilean iragartzea.

HIRUGARRENA.- Zerbizu-kontratuaren lizitazio berriaren jardunbidea martxan jartzea.

LAUGARRENA.- Honela hartutako erabakia hauei jakinaraztea: Gizarte Zerbitzu eta Osasun Sailari, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

4. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2022/3039 DEKRETUA: 2022/53 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2022/3039 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

022KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hau:

53. zenbaki duena, 364.825,66 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau



TOLOSAKO
UDALA

2022IGBA0035

EBAZTEN DU:

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

53. zenbaki duena, 364.825,66 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkari akzidentala

Karmele Contreras Goikoetxea

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 12:05ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022IGBA0035-2023-01-03 Gobernu batzarra akta/2023-01-03 Gobernu